



Hilaren 28an itxiko ditu ateak Zaldundegi jatetxeak

Urnietako taberna-jatetxea aski ezaguna da herrian, eta eskualde osoan. Negozioaren arduradunek agurraren berri eman diote Aiurri / 2-3

AIURRI

Saroberen ibilbide oparoa

Hiru hamarkadako bidea osatu du aurten Urnietako Sarobe Arte Eszenikoen guneak / 8-9

Ospatu dituzte jaiak
Karrikan, eta
ospakizunak laster
iritsiko dira beste
hainbat txokotara / 6-7

Pako Arnaiz "Pakitin"
korrikalari ohiaren
iragan loriatsua
gogoan hartuko dute
Etxeberrietan / 10-11

65 sukia
JAI-ALAI SUMMER SEASON
King's Edition vol.2

UZTAILAK 20 LARUNBATA 16:30EAN
GALARRETA - JAI ALAI HERNANI

01. partida (3 setera)
UZTAILAREN 18KO 1.PARTIDAREN IRABAZLEAK
UZTAILAREN 18KO 3.PARTIDAREN GALTZAILEAK

02. partida (3 setera)
ALDABE - LARRAÑAGA
UZTAILAREN 18KO GALTZAILEAK

03. partida (3 setera)
SEGUROLA - GOIKOETXEA V vs
JABALERA - ZUBIRI

ORNA MENDY | ERREMONTA BIZIRIK | 65 sukia | Orona | HAZI DEKUSKOA | AIURRI | SARRIKAR ETXEBERRIEN



Axun, Carmen eta Pepi Garagorri ahizpak eta Carmenen alaba Eneka, Zaldundegiko sukaldean. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Zaldundegi jatetxeak atek itxiko ditu. Urnietako paisaia urbanistikoko pieza ezagunenetakoa pertsiarik itxiko ditu datorren astean, uztaileko azken igandearekin bat. Ez dugu betiko esango, hamarkada batzuk barru zer gertatuko den jakiteko modurik ez dugulako izango, baina ixteko erabakia hartu duten lau emakumeek kitto, bale esan dute. Ondo merezita gainera, Axun, Pepi eta Carmen Garagorri ahizpen kasuan, sei hamarkada luze baitaramate su artean; tabernako barraren atzean, edota jatetxean, sabel orroak apaltzeko asmoarekin joan diren milaka eta milaka herritarren mesedean. Eneka Iribar Carmenen alabak mende laurdena darama, baina ama eta bi izeben erabakia bere egin du.

Urnietarrari, eta inguruko herritar askori kosta egin zaie sinestea, Zaldundegiren itxiera iritsiko zela onartzea, baina hala da. Urnietako ondare izan baita jatetxe ezaguna, herriak izan duen jatetxe ezagunena ez bairik gabe. Onena ere bai, askoren ahotan. Zaldundegik zerbait izan badu neurriko salneurrian otordu oparoko eskaini izana izan baita. Berezik ixteko erabakia bertako belarria, legatza frijitua eta saltsan, eta nola ez, Urnietako mugetatik harago oso ezaguna egin den flana.

Garagorri ahizpak ez dira, preseski, komunikabideetan

Urnietako ondarearen agurra

Uztailaren 28an itxiko ditu atek Zaldundegi jatetxe ezagunak; sei hamarkada pasa aritu dira lanean jo eta su Axun, Carmen eta Pepi Garagorri ahizpak, eta mende laurdena Eneka Iribarrek— Carmenen alaba— hainbat langileren laguntzarekin

azaldu zaleak, baina Eneka alabaren bultzadari esker onartu dute Aiurriko eskaintzari baiezkoa ematea. Jatetxe atzealdean dagoen terraza dotorean batzartu dira, ordu pare bateko solasaldia egiteko. Azken egunak nola bizitzen ari ote diren galdetu diegu, aurrena, honatxerantzuna: “Bukatzeke desiatzen

"ITXIERA IRITSI AHALA ESKAERA ASKO JASOTZEN ARI GARA, DENEK ETORRI NAHI DUTE"

gaude. Aspaldi esan genuelako bukatu behar genuela, eta eguna iristen ari den neurrian ba eskaera asko jasotzen ari gara, jende guztiak etorri nahi du...”. Axunek esan duenez medikuak bezala ari dira bezeroekin: “egun honetan ez dago lekurik, beste honetan ahal duzu? Eta antzera”. Atsedean pixka bat behar dutela aitortzen dute, “eromena izaten ari baita bukaera. Jendeak estimatzen gaituelako ari da etortzen, noski. Gazte jende asko, eta kontent gaude”.

Zaldundegin nola hasi ziren azaldu digute: “Bertan jaiotakoak gara. Mojetan ikasiak. 14 urte-

rekin batxilergoa hasten zen orduan. Moja batek gure amari esan zion, alabetako batek batxilergoa egin beharko zuela, eta amak hala esan omen zion: ‘etxean hiru batxilergo dauzkatz: sukaldia, jatetxea eta taberna’. Lanean gazte hasi ginen, eskolara joan eta gero. Ama sukaldaria genuen eta haren atzetik joan ginen gu”.

"JENDEAK ESTIMATZEN GAITUELAKO ARI DA ETORTZEN, ETA KONTENT GAUDE"

Euren adinaz galdetuta, ‘asko’, bota dute hirurek, algara batean. Zehaztasunik eman gabe lanean 60 urte inguru eman dituztela esan digute: “Hori lotsa, hori!”, bota du barrez Axunek. “Oraingoei esan behar hori errepikatzeke”, Carmenek. “Pentsioa zerbait emango ote digute...”, Pepik, umoretsu. XX. mende erdiko garai hartan murgildu da hirukotea: “Urnietan hiru taberna zeuden gu hasi ginenean: Matxo, Txapelenea eta gu, ez zegoen besterik”.

Zaldundegi erdi baserria omen zen, “esnea ere saltzen baike-nuen”. Telefonoa ere ez zegoen etxe guztietan, “eta enkarguak egiten genituen; bakarren bat hiltzen bazen abisua eman eta antzekoak. Zerbitzu publikoa ginen, denda, abisuak, apopiloak, turistak, gasolina eta pentsua banatu... Albaitaria ere gure etxean bizi izan zen ezkondu zen arte, pentsa. Taula bat geneukan jarrita: medikua eta albaitaria, eta enkarguak bertan apuntatzen genituen. Tanco berak ere farmazia jarri zuenean aurrena Udaletxera joan zen eta gero Zaldundegira”, gogoratu dute.

Zaldundegi garai batean herriko estankoa ere bazen, herri-tik kanpo ere oso ezaguna. Jatetxea errepide nagusiaren alboan dago, eta bere izena posta banatzen zuten zaldunak ostalua hartzen zutelako omen dator. Hiru ahizpek euren aita zena morroi bezala Zaldundegin hasi zela gogoratu dute, 1927an. Laster mendea beteko da: “ama eta aita San Migel festa batzuetan elkar ezagutu ziren, tabernan, biak lanean, eta handik gatzogu”.

Eneka Carmenen alabak 43 urte ditu. Ikasketak bukatu eta jatetxean geratu zen lanean, berak hala erabakita. “Bi hamarkada pasa egin ditut. Gaur egun zaila dago gazteren batek nik egin nuena errepikatzea, asteburuak libre nahi baititu gazteak”. Amak kendu dio hitza: “Eneka gu bezala hasi zen jatetxean, berak erabakita. Gu ez ginen behartuta hasi ostalaritzan, hala nahi izan genuelako baizik, alaba berdin”. Zaldundegi 1999an berriro zuten erabat, eta orduz geroztik lana asko igo omen da jatetxean. Horren zergatia eskatu diegu lauri, eta aho batez erantzun dute: “Etxeko janaria, kalitatezkoa prezio onean”.

Gabonetan hartu zuten erabakia

Noiz hartu ote zuten jatetxea ixteko erabakia? Eneka: “Gabonetan, eta bat-batean. Nekatuta geunden, eta kito esatea erabaki genuen”. Herriko jende askok galdetu du han eta hemen jatetxea norbaitek hartuko ote zuen; aginte makila ez ote zioten norbaiti emango? Enekaren azalpen zintzoa: “Kanpoko jendea ekartzeari baztertu genuen, denak etxeakoak garelako. Ez dago erraza, bertigo pixka bat ematen du. Orain ere etxekoez gain zazpi langile ditugu eta zenbaki handiak dira, amak eta bi izebek utzi eta gero, ni bakarrik arduradun izateko. Gauzak konplikatatu ordez sinplifikatzea erabaki genuen. Orain arte etxekoen artean eraman dugu dena, eta orain ni bakarrik geratuko nintzateke arduradun. Mentalitate aldaketa handia behar zen jarraitzeko, jende berria, kanpokoak, eta ez dakit amak eta bi izebek hori begi onez ikusiko ote luketen. Etxea ere euren da, bertan bizi dira, goialdean, eta bertan bizi izanda negozioa beste norbait eramaten ari dela ikustea...”.

Carmen amak berriro, kontrapuntua: “Eneka berarentzat lan handiak zirela pentsatu genuen, eta ez dugu behartu negozioarekin jarraitzea. Ez hasi zenezan, ezta orain ere. Neroni ere ez nintzateke lasai biziko alabak negozioa hartu izan balu. Eneka gaztea da oraindik, lana egin beharko du, ez pentsa, baina zer edo zer egingo du”, bota du, alabari begirada konplizea eginda.

Saltzeko, edo errentan jartzeko asmorik izan gabe ere, jatetxea bereganatzeko eskaintzarik izan ote duten galdetu diegu lauko-teari: “Ez”, tinko hiru ahizpak. “Zurrumurru pilo bat entzun ditugu barraren bestaldean: honek hartu behar zuela, beste hark, hurrengoak hainbeste diru eskaini duela... Astakeri handiak! Bezeroak guri galdetu besterik ez, baina guk ezer ez zegoela esan eta ez ziguten sinesten. Oraingoz esan genezakeena da gurekin bukatzen dela negozioa”.

Jatetxea kudeatzeko modu bat ikasi zuten gazte zirela, eta hala egin dute Garagorri ahizpekin eta Enekak azken hamarkadetan. Igandetan, jendeak belarri pintxo famatua eskatzeko ohitura izaten du, eta bizi ibiltzen ez dena pintxo hori dastatu ezinik geratzen da, bu-



Zaldundegiko protagonistak, goiko jangelan. AIURRI

katu egiten delako. Bukatu, kopuru jakin bat prestatzen dutelako betidanik: “Arrazoi bategatik: jatetxeko martxan hasten garelako eguerdia pasata, eta denera ezin dugu iritsi. Belarriak jan nahi dituen bezeroei esan izan diegu, onena erreserbatzea dela, horrela belarriak jango dituztela ziurra baita. Jendeak pentsatzen du belarri edo bakailao pintxoak egun guztian eduki behar dugula prest, eta ez da horrela. Egun guztian prestatuko bagenitu jatetxea ezingo genuke behar moduan atenditu”. Bukatzen direnean bukatu egiten dira; ez dituzte gehiago prestatzen.

Famatu asko bisitan

Zein izan ote da Zaldundegiko jaki ezagunena? Jendearen gustukoena? “Legatza esaten du jendeak, bai frijitua, baita saltsan ere”. Gastronomía kritikoren baten pasadizo gogoratu du Carmenek: Mikel Corcuera izenekoa etortzen zen gurera sarri, bere amarekin, eta halako batean Zaldundegiko legatza aipatu zuten egunkariren bateko kronikan, beste hiru jatetxerekin alderatuta. Berak beste gastronomía kritikoren bati esandakoa izan zen”.

Jende ezagun asko pasa da hiru ahizpen begien aurretik sei hamarkadatan. “Mikel Laboa zena sarri etortzen zen; Carmen Maura aktorea, Imanol Uribe zinema zuzendaria... Arzak ere egon izan da gurean, Argiñanorekin”. Zer jan zuten horiek? “Ez esan!!!”, bota du Axunek: “secreto profesional”, barrez lehertzen. “Ez zuten legatza jan, hori bakarrik aitortuko dut”. Bi sukaldariak ez omen ziren batere nabarmentzen. “Ez ziren sukaldaria pasatzen. Gehiago aztoratzen ziren eguneroko bezeroak. Izan zen bakarren bat etxera plater baten bila joan izan zena, autografo bat lortzeko, pentsa”.

Anekdotaren bat kontatzeko eskatu diegu, eta asko dituztela esan digute. Travel edo Osakidetza txartelarekin ordaintzen tematu zen bezero bat, edota karta joko bere unerik oparoen zegoenean zenbat ‘cafe completo’ ematen zituzten egunean: “Ehunka bai, egun batzuetan. Kafe, kopa eta puru pilo!!!”, bota du Axunek. Zaldundegiko tabernako mahai guztietan sortzen ziren partidak, eta askok orduak ematen zituzten eserita. Karta jokoari begiratzen zegoenak isilik egon behar zuten de-

rrigor, jokoan ari zen norbaiten purrustada jaso nahi ez bazuen.

10 egun baino ez dira geratzen pertsiana jaisteko. 10 egun 60 urtean. Jendea triste dagoela esan diegu: “Nabaritu dugu, bai, estimu handitan gaituztela. Urnietan, baina baita Hernanin eta Donostian ere, andoaindarrak ere bai. Hiru herri horietako jende asko etorri izan da gurera, herrikoez gain. Aspaldiko jendea, urteak daramatzana gurera etortzen”. Omenaldi hunkigarriak jaso omen dituzte: “Patxi Gorrotxategi eta koadrilak lore sorta oparitu ziguten, Kantzaun elkarteak koplak eta bertso eder askoak eskaini... Joxe Lizaso eta bera bezalako betiko bezeroek esan digute: ‘eta orain nora joan behar dugu guk?’.

60 urte pasa ia egunero gauza bera egiten eman ondoren, ze asmo ote dute irailtik aurrera hiru ahizpek? Hauxe: “Lasai bizi”. Carmen: “Ni loreekin ibiltzen naiz sarri, eta ez dut askoz gehiago behar. Hara eta hona bazkaltzera joan, eta martxa horretan ibiliko gara. Jose Manuel semeari esaten diot deitzeko eta tokia gordetzeko. Camara Pasaian, kostaldeko beste herri batzuk: Iribar Getarian, Asador San Martin Orion, Jua-

Flanaren errezeta, sekretupean

Esan dugu, belarri pintxoak eta flana direla Zaldundegiko produktu ezagunenak. Hain da ezaguna, badela jendea tabernara flan bat jatera joan dena, eguneko edozein momentutan. Ez dakite zergatik duen hainbesteko sona, baina badakite ez dutela errezetarik jakinaraziko. Axun: “Amarengandik ikasi genuen, eta nirekin gordeko dut betirako, kokakolaren formula bezala. Gu labeari martxa ematera mugatzen gara, edo batidora erabiltzera!”.

Karlos Argiñanoren inguruko anekdota ere argitu dute: “Bere programa Urnietan grabatzen zutenean langileak gurera etortzen ziren bazkaltzera. Haiek flana jaten zuten, eta Argiñanori esan zioten, nonbait. Halako batean langileak etorri eta Argiñanoren telebista saioa jartzeko esan ziguten. Orduan esan zuten Argiñanok, langileak bazkaltzen zuten jatetxean oso flan goxoa ematen zutela. Deitu izan digute, maratoni bat korritzera zetozenak edo, flan eskatuz, Argiñanori entzun ziotelako”. Urnietan gutxi izango dira Zaldundegiko flana oraindik dastatu ez dutenak...

nito Kojua Donostian, Kako Astigarragan... Ohitura finkoko jendea gara”, bota du Axunek.

Enekak ere egin du bere argakia: “Atsedean hartu eta gero ikusiko dut. Bidaiatu, etxeko gauzak gehiago estimatzeko”.

Herritar xumeak, langile finak, agurrean ere umil: “Eskerrikas-ko denei, bihotz-bihotzez”, bota dute. Herritarren partez ere eskerrak Zaldundegiko lagunei, hainbat urtetan hainbeste jenderen poztasunean laguntzeagatik.



Ibai Gurrutxaga. AIURRI



Estela Cuevas. AIURRI



Aitak jaso zuen Maddi Etxeberriaren saria. AIURRI



Neide Garmendia. AIURRI



Jon Ander Belamendia. AIURRI



Xabier Huitzi. AIURRI



Anaiak jaso zuen Imanol Etxeberriaren saria. AIURRI



Ibai Lasarte. AIURRI

Egunean Behin 15. denboraldiko sariak, Altunaren eskutik

Aurreko igandean amaitu zen galdera-erantzunen lehiaketa eta "Aiurri" taldea osatzen duten ehunka jokalarien artean zozketa egin zen. Saria, denboraldi honetan ere, bertako produktua da: Altuna Urnietako sagardotegiko botila-sorta

Erredakzioa ANDOAIN

Aski ezaguna da Egunean Behin lehiaketa: martxan jarri zutenetik, Euskal Herri osoan, milaka jokalaririk batu dira ekimenera. Taldeak sortu daitezke, eta "Aiurri" izenekoan Andoaingo, Urnietako eta Aiztondoko ehunka lagun ari dira parte hartzen. 15D denboraldi berriena hamar astez luzatu da eta lehiakideek, egunero-egunero, hamar galderei ahalik eta denbora gutxienean erantzun behar zieten.

Aurreko denboraldi guztietan, astez aste, zozketa bidez hautatzen zen sariduna. Aiurriko taldean ez baitzen puntuaketa onena saritzen, aste osoko partidak jokatzeko baizik. Denboraldi honetan prozedura beretsua izan da, baina ñabardura berri batekin. Denboraldi osoko jardunbidea kontuan hartu da, eta aurreko astean bertan egin zen

zozketa. Saridun gehienak argazkietan ageri dira, orrialde honetan bertan. Bi lehiakide gehiagori laster iritsiko zaie saria, egun hauetan jasotzeko ezintasuna adierazi dutelako.

Altuna sagardotegiko sagardo-botilak

Zero kilometroko produktuak banatu dira denboraldi hauetan guztietan: Arruti gozotegiko opilak, Aspilla baserriko saski ekologikoa, Mizpiradiko sagardo... 15D izeneko azken denboraldian Urnietako Altuna sagardotegiko botilak zozkatu dira. Sari bakoitzak hiruna botila eraman ditu etxera. Uda giroan, otorduatarako osagai bikaina da sagardo frexkoa. On egin!

Denboraldi berria irailean abiatuko da, udako oporraldien ostean. Adi egon, beraz, Aiurrikide!

Andoain 2024

Zaude prest!

Badator eta...

Izugarrria izango da!

**Erne irailaren
12ari!!!**

ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA



Aurkezleak eta play-back saioko partaideak, taldeko argazkian. Hainbat argazki eta bideo web orrian. AIURRI

Jaiari eutsi diote Karrika auzoan

Asteburu osoko egitaraua osatu ahal izan zuen auzoko jai batzordeak, ostiralean hasi eta igandera bitarte luzatuta zena. Igandean, esaterako, auzotar eta herrikide ugari hurbildu ziren sagardo-dastaketara eta jaiari amaiera ematen dion Play-back saiora

taErredakzioa ANDOAIN

Ostiral arratsaldean ekin zioten jaiari, eta lehen eguneko ekitaldi esanguratsuen gaueko kontzertua izan zen. Extremoduro taldearen zaleek gozatu ederra

hartu zuten Ama izeneko taldeak eskainitako bertsoekin. Larunbatean auzo bazkaria eta apartesta antolatu zituzten, eta igandean auzotar eta herrikide ugari erakarri zituzten. Eguerdian,

sagardo-eta pintxo dastaketara. Eta, iluntzean, play-back saiora. Igande gauez pantaila handi bat jarri zuten taula-gainean eta ez ziren gutxi izan Eurokopako finala bertan ikusi zutenak.



Play-back emanaldian parte hartu zuten haurrak. AIURRI



Jose Luis Hernandez izan zen toka txapelketan onena. AIURRI



Auzotar ugari hurbildu zen igande goizean sagardo eta pintxo dastaketara. AIURRI



Mari Mar Hendandez eta Begonia Vicente, mus-txapelketako irabazleak. AIURRI



Bubble edo puxika handietan aritu ziren futboleak, asteburuan. AIURRI

ETXEBERRIETAKO JAIK



Desafioa Etxeberrietan, artxiboko irudian. AIURRI

UZTAILAK 27

LARUNBATA

11:00 Txupinazoa. Ondoren, haur parkea, ur-puzgarriekin.

16:00 Mus lehiaketa, Kotoi elkartean.

18:00 Sagardo dastaketa, Etxeberrieta plazan.

20:00 Afari-merienda Miranda pasealekuko zelaian.

23:00-03:00 DJ Nemux.

UZTAILAK 28

IGANDEA

10:00 Kros herrikoia XV. Roberto Cabrejas Memoriale. Ondoren, 'Pakitin' Arnaiz atletari omenaldia.

12:00 Moto erakustaldia: Beñat Fernandez "Pelontxu".

18:00 Herri-kirol desafioa: Etxeberrieta-Goiburu. Bost proba: Txingak, harri-jasotzea, lokotxa biltzea, zaku-karrera eta soka-tira Etxeberrieta plazan.

20:00 Musika kontzertua, Habi taldearekin.

UZTAILAK 30

ASTEARTEA

17:00 Marrazketako haur lehiaketa.

18:00 Zumba erakustaldia.

19:00 Patata-tortilla lehiaketa.

20:00 Danborrada.

23:00 Dantzaldia Gaur-8 eta Ken Bat taldeekin.

UZTAILAREN 31

ASTEAZKENA

10:00 Pasakallea.

10:00 Meza Santa Kruz elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin.

10:30 Harrera Goiburu oilasko biltzaileei.

12:00 Kantu kale-jira.

14:00 Herri bazkaria: Zikiro-jatea. Omenaldia, zozketak eta DJ Kl.

20:00 Sardina-jatea.

20:00 Toka lehiaketa.

20:00-22:30 Kontzertua: La Jodedera taldea.

SAN ESTEBAN JAIK GOIBURUN



Sagardo dastaketa Goiburun. AIURRI

UZTAILAK 31

ASTEAZKENA

05:30 Oilasko-jokua. Auzotarrak baserriz baseri aterako dira, trikitiaren laguntzarekin.

15:00 Oilasko jokuko kuadrillaren bazkaria plazan. Ondoren, dantzak eta jolasak.

ABUZTUAK 2

OSTIRALA

19:30 Suziriak eta kanpaiak San Estenbago ermitatik. Jarraian, Kantujira. Bus zerbitzua, Urrats paretik, 19:00-21:00 artean.

21:00 Auzo afaria frontoian, Euskal Parrillaren eskutik. Txartelak salgai Urratsen eta Txertotan, uztailearen 28ra arte.

23:30-02:30 Gabezin taldea. Gautxori busa: 23:00-04:00.

ABUZTUAK 3

LARUNBATA SAN ESTEBAN EGUNA

11:30 Mus lehiaketa plazan. Izen-ematea, 11:00tan hasita. Bus zerbitzua, Urrats paretik, 11:00-15:00 eta 16:30-21:00 artean.

12:00 Meza ermitan, Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren, hamaiketako eta Gora Kaletxiki txaranga plazan. Plazan bazkaltzeko aukera izango da. Puntu Morea ere bertan izango da. Bazkalostea eta desapiyua girotuko dute Eñaut Martikorena eta Andoni Rekondo bertsolariek.

17:00 Desapiyua: SEGAK erronka luzatu dio Adunako herriari.

18:30 Gaur 8 taldea.

21:00 Afaria, Euskal Parrillaren eskutik. Tikekak salgai, txosnan bertan.

00:00-03:00 Itzal taldea. Gautxori busa: 23:00-04:00.

ABUZTUAK 4

IGANDEA

12:00 Pailazoak: Potxin eta Patxin. Ondoren, Lebitonekin argazkia ateratzeko aukera. Bus zerbitzua, Urrats paretik: 11:00-12:00 eta 17:00-21:00.

13:00 Goiburuko VI. Pala txapelketako finalak. Plazan bazkaltzeko aukera.

17:30-20:30 IV. Erromeri maratoia. Geldialdirik gabeko hiru orduko saioa, Lontxo Iraola Bengoetxearen omenez. Trikitilariak: Oier Balzola eta Unai Andonegi, Imanol Astiasaran eta Rakel Pujana eta Elustondo anai arrebak. Ordu berean, sagardo-dastaketa eta auzotarrek mimo osoz prestatutako patata-tortilla pintxoak eta gehiago. Amaitutakoan, plazan afaltzeko aukera izango da. Afal ostean, trikitilariak jarraituko dute azken indarrak xahutu arte. Gautxori busa: 22:30-00:30.

JAIK BURUNTZAN



Soka-dantza Buruntzako jaietan. AIURRI

ABUZTUAK 15

OSTEGUNA

19:30 "Kale gorrian" antzezlan.

20:30 Patata tortilla eta postre lehiaketa. Haur-gaztetxoan eta helduen sariak banatuko dira.

21:30 Luhartz erromeri taldea.

Ospakizun guztiak Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean dira.

ABUZTUAK 16

OSTIRALA SAN ROKE EGUNA

10:00 Txistularien kalejira Buruntza auzoan barrena.

10:30 Auzoko hildakoen omenez, meza Buruntzako San Martin eliza zenaren aztarnategian.

11:00 Soka-dantza, txistularien eta Urkiko kideen parte hartzearekin, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.

11:30 Gora Kaletxiki txaranga.

12:15 Binakako toka txapelketa mistoa.

13:00 Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsularien saioa.

13:30 Bazkaria Gaztañagan, bertsulariekin.

18:00-20:00 Elustondo anai-arrebak, Gaztañagaren kanpoaldean.



Sarobe eraikina sortu aurreko argazkia, 1990eko hamarkadan. SAROBE

Kulturaren erakusleiho, arte eszenikoen fabrika

Hogeita hamar urteko ibilbidea osatzera doa, igande honetan, Sarobe arte eszenikoen gunea. Kulturgile ezagunen keinu beroa jaso du Urnietako egoitzak, hiru hamarkadak gogoan hartzeko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ez du bat bete, ez eta bi ere. Hiru. Hiru hamarkada biribil beteko ditu, aurtan, Urnietako Sarobek, herriko arte eszenikoen gunea. 1994. urteko uztailearen 21ean ireki zituen, lehenengoz, atak, urteen poderioz Euskal Herrian sortzaile eta kultura-eragile askoren erreferentziazko geldialdi bilakatu den gunea, Enrique Santiago Rodriguezen ekimenez. Horma horien artean zegoen Elizondo zinemari lekuko hartu zion, begirada zabal-

du eta Urnietan nahiz Euskal Herrian pizten ari zen kultur loraldiari erantzuteko: antzerkigintzatik hasi eta dantzara bitarte, arte eszenikoen adar guztiek izan dute tokia Sarobeko oholtzan. Bertako triapak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte Jaione Jauregi Garmendiak, Maribel Tardio Alonsok eta Pablo Lusarreta Pardok, hasierahasieratik baitaude buru-belarri murgilduta. Atzera begirako ariketan jarrita, biziki asebeteta sentitzen dira hiru kideak

egindako ibilbidearekin. Harre-ran eta kudeaketan egiten dute lan Jauregik eta Tardiok; aretoaren teknikaria da Lusarreta: "Hogeita hamar urte igaro badira ere, oraindik, ikasten jarraitzen dugu".

Ideien lapikoa

Oholtza ez ezik, azpiegitura ere izan da Sarobe artista askorentzat, obra baten sorkuntzan beharrezkoak diren baliabide guztiak ipintzen dituelako eskura. Hori horrela, erakustoki

bezain fabrika izan da kultur eragileentzat. Konpainiek beren proposamen eszenikoak sortzeko zein moldatzeko espazio profesionala da, arte eszenikoen laborategia. "Opari bat" izan da hori urte hauetan guztietan Jauregientzat "benetako pribilegioa" baita berarentzat "hutsetik hasitako obra batek jendarean taularatu bitarte eman beharrek pausu guztien prozesua ikusi ahal izatea". Era berean, ibilbide luzeko lasterketa baten gisan bizi du Tardiok hiru hamarkadako lana: "Ekoizpen bakoitzaren zirrikituak ikusteko aukera izan dugu, baita konpainia bakoitzaren askotariko estiloak bereizteko eta alderatzeko parada eduki ere".

Hori horrela, antzerki-konpainia askoren geldialdi bilakatu da Sarobe denborarekin: Tanttaka Teatroa, Txalo Produksioak, Ados Teatroa, Vaiven Produksioak... Saroben bertan ekoizten dituzte beren obrak, aretoa bera etxe sentitzeraino. Hala, "gertutasuna" da, besteak beste, Jauregiren iritziz, gako: "Bidelagun izaten saiatzen gara, egunerokoa, beren beharretara egokitzen ahaleginduz, malgutasunarekin". Harekin bat dator Lusarreta, izan ere, "beste toki batzuetan ez dagoen askatasuna dute hemen konpainiek lanerako".

"Oso ongi pentsatutako aretoa da", azaldu du Tardiok, "zaindua, gertukoa, berezia, eta hori guztia publikoari eta artistari iristen zaie". Bada, artisten joan-etorrian, oso berezia egin zitzaion

Lusarretari Kulunka konpainiaren "Forever" maskara-antzez-lana: "Muntaketa konplexua bezain interesgarria du obrak". Begirune handiz gogoratzen du, modu berean, Jauregik Kulunkaren lan hori bera: "Berriki, Max-etan saritu dituzte. Nire miresmena, hain desengonkorra den ogibide honetan dabiltzanei". Tardiok, berriz, begirada aretoaren hastapenetan kokatu du, Sarobetik igaro diren ekoizpen kuttunengatik galdetuta: "Bi aipatuko nituzke. Ginebran (Suisa) estreinatu zen Enrique Santiagoren 'Esperando a Godot' eta Oscar Gomezen 'Woyzec'".

Guztia ez da antzerkia, ordea, dantzak ere pisua baitu gunearen jardunean. Bide horretan, egoitza artistiko gisa du Sarobe Aukeran Dantza Konpainiak, eta, astero-astero, bertan bilduta ematen die forma ikuskizunei. Azken geldialdia ekainaren amaieran egin zuen, euskal ipuingintza oinarri duen "Ama-ma" ikuskizunaren sormen-prozesua agerian jarri eta entseguko atak ikusleei irekitzeko.

Urteak joan urteak etorri, abiapuntuan bezain ongi al dabil martxan fabrika-zerbitzua? Datuetara jo du Jauregik baiezeko erantzuna berresteko. Urtero, bataz-beste, 10-12 ekoizpen-prozesu jasotzen ditu Sarobek: "Ekoizteko moduak aldatu arren, oinarrian, behar-beharrezkoak izaten jarraitzen dute obra baten eraikuntzan espazioak, denborak eta baliabideek, eta Sarobek hori guztia eskaintzen du modu egonkor bezain sistematizatuan". Egitasmo berritzailea izaten jarraitzen du Tardiotentzat Sarobek, hiru hamarkada igaro badira ere: "Eredu izan da beste gune batzuentzat".

Cinema Paradiso

Euskal Herriko zinemagintzan, mugarri garrantzitsua ipini zuen Sarobek "Zine Aretoa" zinema-eskolarekin, Espe Luffiego Garciak kudeatuta. 1994 urtetik 2001era bitarte, "Zinema errealizazio eta ekoizpen hastapena" izenburupean, arte diziplina horretan murgiltzeko aukera izan zuten askok eta askok, bederatzi hilabete irauten zuen ikasturtean. Orotara, 16 mm-ko hamasei film labur 35 mm-ko sei film labur filmatu ziren eskola irekita egon zen sasoietan, izen handiko irakasleek lagunduta: Enrique Urbizu,

Chus Gutierrez, Michel Gaztambide, Iñaki Ros... Bide beretik, bertatik ateratako ikasle askok ibilbide oparoa izan dute zinemagintzan, esaterako, Alazne Amestoyek, Jon Garañok, Aitor Arregik, Jose Mari Goenagak...

Tokikoen aterpe

Begirada etxera ekarrita, Urnietako gizarte eta kultur bizitzan eragin zuzena izan duen gunea da Sarobe. Hala, astebururo makina bat herritar gerturaten da bertara, aretoak eskaintzen dituen emanaldi eta aurre estreinaldiak ikusteko. Osasunari eta kulturari lotutako ikastaroak, Lourdes Iriondo musika-eskolaren emanaldiak, antzerki-eskola, herriko bi ikastetxeei bideratutako eskaintza pedagogikoak, Egape Dantza Taldea eta Txanbolin Txistulari Banda, ikasturte amaierako emanaldiak, herriko eragileen kultur hitzorduak... Urnietar zerrenda-luzea ibili da gora eta behera Sarobeko korridoreetan. Jauregiaren hitzetan, herriko kultur adierazpen artistikoaren "topaleku" bihurtu da Sarobe bertako bizilagunentzat: "Herritarrek bere egin dute kulturgunea". Horren erakusle herrigintzatik sortutako "Marizulo", "Urnietan 59", "1936" eta "Gabon Txirrita". Gozotik ibili zen Lusa-rrera antzerki-obra horietan guztietan "teknikoki, konplexutasun handirik eskatzen ez zuten arren, oso sartuta egon bainintzen proiektuetan". Hari horri tiraka, hitz-errenkada batez laburbildu du Tardiok Sarobek herritarrengan eragin duena: "Mugimendua, jakinmina, gizarte-kohesioa, aniztasun kulturala... Finean, komunitateari irekitako gunea da Sarobe, mota guztietako jarduerak garatzeko aukerarekin".

Neurria hartuta

Atzera begiratu eta ibilbidearen errepaso egiteko gonbita luzatzen dute urteurrenek. Zertan aldatu da arte eszenikoen gunea, 30 urteren bueltan? "Sorburuko oinarriarekin eta filosofiarekin" jarraitzen duelakoan da Jauregi. Zentzu horretan, hasierako pausuetako magia pixka bat joan egin dela uste du Tardiok: "Dena aldatzen da jakin-minetik, autogestiotik eta talde-lanetik



"Merry Christmas" laburmetraia grabatzen. SAROBE



Maribel Tardio eta Jaione Jauregi, 1994an. SAROBE




Pepone, Rosendo kantari ezaguna eta Pablo Lusa-rrera. SAROBE

proiektu bat sortu eta instituzionalizatu egiten bada, kudeaketa lan-taldea baztertuta". Nolanahi ere, unean uneko erronkei egokitzen joan dela dio Lusa-rrerak, "bai ikuspegi tek-

nikotik, bai kudeaketari dago-kionez".

Ez du bat bete, ez eta bi ere. Hiru. Hiru hamarkada biribil beteko ditu, aurten, Urnietako Sarobek, herriko arte eszenikoen



Tanttaka Teatroko taldeko kideek Sarobe zoriondu dute, bideo bidez. SAROBE

Saroberi gorazarre, artisten eskutik

Txalo Produksioak

Zorionak, Jaione, Maribel eta Pablo! Azkar igaro dira, baina, jada, urteak ere joan egin dira! 30 urte... Jaungoikoa! Guk eskerrak eman nahi dizkizuegu urte hauetan guztietan etxean bezala sentitu garelako, oso gustura, eroso, ondo tratatu gaituzue. Ea posible dugun beste 30 urtez elkarrekin egotea. Muxu handi bat bakoitzarentzat eta zorionak!

Kresala dantza-taldea

Ezinbesteko bidelagun izan da Sarobe Kresala dantza-taldearentzat azken hiru hamarkadetan. Mila esker 30 urte luze hauetan egindako lanagatik eta eta beste horrenbeste bete itzazuela! Zorionak!

Vaiven Produksioak

Hementxe gaude Vaiven-ekoak Jaione, Pablo eta Maribel, zuekin 30 urteak ospatu nahian. Arte eszenikoak sustatu dituzue, mimo, maitasun eta profesionaltasun handiarekin. 28 urte darara Vaivenek ikuskizunak ekoizten eta zuen espaziotik atera dira ia guztiak. Oso oso eskertuta gaude, onena opa dizuegu! Oso gustura egin dugu lan beti zuen etxean. Zenbat ikuskizun sortu diren hor, zenbat esperientzia... Oso opari ederra! Primeran ospa dezazuela!

Tanttaka Teatro

Zorionak zuri... Aupa Sarobe! Berriz ere hementxe gaude, betiko moduan! Gu hemen bizi izan gara 30 urteotan! Leku ona, jende jatorra... Zorionak eta urte askotako izan dadila! Beste 30! Muxu!

Aukeran Dantza Konpainia

Sarobeko konpainia egoiliarra gara. Oso pozik gaude zuekin 30. urteurrena ospatzeagatik. Mila esker emandako konfiantzagatik eta errespetuagatik! Espero dugu urte luzez zuekin lankidetzan jarraitzea. Mila esker, zorionak!

Katxiporreta

Aurten Urnietako Sarobek 30 urte bete ditu! Urteak bete eta abenturak bizi! Itzali kandelak eta jan pastela! Eskerrik asko urte hauetan guztietan euskal kulturari eman diozuen berotasunagatik, bai horixe, mila esker! Aupa zuek eta gora Euskal Herria

guneak. Bada, zer kontatuko lukete bertako kamerinoek, hitz egingo balute? Oholtzara igo aurreko urduritasunak, kamaraden arteko txutxu-mutxuak, lasaitasuna bilatzeko elkarriz-

keta terapeutikoak, ahotsa berotzeko ariketak, testuak errepasatzeko errezitaldiak, jantzi-aldaketak, elkarri emandako animoak... *Show must go on*, Sarobe!



2008ko uztailearen 6an ibilketa-proban (martxa), Euskal Selektzioa ordezkatzuz. ARNAIZ

Omenaldia, "Pakitin" Arnaizi

Atletismoan egundoko lorpenak pilatu dituen "Pakitin" Arnaiz omenduko dute Etxeberrietako auzotarrek, aurtengo jaietan. Uztailearen 28an, XV. Roberto Cabrejas Kros herrikoaren ostean egingo diote aitortza ekitaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

"Pakitin" Arnaiz Velasco (Andoain, 1943) aski ezaguna da Andoainen, urte mordoan, las-

terka eta ibilketako diziplinetan makina bat garaipen lortu baititu, eta aparte, Andoainen kirola herrikoitzearen aldeko

ekintzaile porrokatua izan baita. Azken alderdi horren gainean, gogoratu besterik ez dago Zumeatarra elkartearen atletismoko

sailean hamarkadetan egindako ahaleginak, bai Bixente Huizirekin batera 70eko hamarkadaz geroztik, eta baita hura 2009an hil ostean.

Atletaren fazetari begiratzuz gero, esan behar da luzea dela egin duen ibilbidea, eta amaigabea lasterka zein ibilketan pilatu dituen lorpenen palmaresa. Esate baterako, ibilketako (martxa) diziplinan, Europa eta Mundu mailako txapelketetan oso emaitza onak lortu izan ditu, beterano gisa.

Kirol askokoa, betidanik

Berak aitortu duenez, txikitatik izan da kirolzalea. "Mendizale amorratua izan nintzen gaztetatik. Konta ezin ahala txango egiten nituen Euskaldunarekin nahiz lagun arteko giroan, baina horrekin konformatzen ez, eta beste zenbait kirol joan nintzen probatzen, urtetan aurrera. 60ko hamarkadan, arraunketak erakarri zidan. Lehenbizi, Santa Krutz jaietan, auzoen arteko batelen txapelketetan parte hartu nuen patroi gisa, Zumea auzoko tripulazioarekin. 1961ean, txapelketa irabazi genuen! Ondorengo urtetan, Errekaburu elkarteak atera zuen bateleko entrenatzailea izan nintzen. Haren ibilbidea amaitu zenean, Hernaniko trainerillarekin murgildu nintzen, patroi gisa berriz ere".

70eko hamarkadan, atletismo-rako jauzia egin zuen Arnaizek. "Dena esatera, modu xeble bati esker izan zen, lagunene arteko apustu batek bultzatuta izan baitzen, 1973an. Garai hartan herrian korrika aritzen zen bakarrenetakoa, Inaxio Iburgurenek eta biak elkarriz mokoka eta desafioka hasi ginen, ea nork eman azkarrago bost itzuli Etxeberrie-

tako zelaiari. Antxo-sorta jarri genuen jokoan, eta nik irabazi nion. Hortik sortu zitzaidan lasterka hasteko arra".

Bixente Huizi prestatzaile eta animatzaile izanik, inguruko herri lasterketetan murgildu zen hartaz gero. "Trofeo ugari eskuratu nituen han hemen, maila popularrean. Bereziki gogoan daukat, 1979an, Santa Krutzetan antolatuta zen lehenbiziko krolean, herriko lehenbiziko sailkatu nintzeneko egun hura".

Arnaizi hazten joan zitzaion lasterketenganako grina, eta 1984an, 40 urte bete berritan, federatu egin zen. Erabaki horrek, atletismoko lehiaketa ofizialetan beterano gisa parte hartzeko aukera eman zion. 1984-1987an sekulako garaipenak eskuratu zituen. Lorpenen zerrenda hain oparoa izanik, ezinezkoa da zerrenda osorik ematea, baina zenbaitzuk aipatzearen, 1984an, neguko krolean, Euskadin urrezko domina eta Espainian brontzezkoa; maratoian, 02:47ko denbora lortuta, Espainian zilarrezko domina. 1985ean, Euskadiko bi urrezko, maratoian eta 3.000 m. oztopoetan; bestalde, urte horretan, Erroman, munduko txapelketan parte hartu zuen.

1986an, krolean, Gipuzkoan urrezkoa eta Espainian zilarrezkoa.

1987an, Euskadin 3.000 m. oztopoetan zilarrezkoa, eta, Espainian maratoian brontzezkoa eta 3.000 m. oztopoetan zilarrezkoa.

Urte horietan, marka pertsonalen artean, nabarmentzekoak dira Behobia-Donostian 01:11ko denbora, eta, Donostiako maratoian 02:37koa.

Atletismoko epaile

Garaipenez pilotatzen ari zitzaion ibilbidea eten behar izan zuen

**FRANTZIAKO
TOURRA**
AIURRI.EUS | @aiurri

2024/6/29 – 2024/7/21

**KRONIKA, EGUNERO
ETAPA AMAITU ORDUKO**

ANDONI URBISTONDO

**ETA ABUZTUAN:
ESPAINIAKO
VUELTA**

2024/8/17 – 2024/9/08

**KRONIKA, EGUNERO
ETAPA AMAITU ORDUKO**



1988etik aurrera bolada batez, begi batean erretina-askatzea jasan zuela-eta egin zioten ebakuntzaren ostean. “Nolanahi ere, atletismoari lotuta jarraitu nahi nuen, eta epaile izateko titulua atera, eta horretara bideratu nuen burua. Era horretan, 26 urtetan segidan, Euskadiko Atletismo Federazioko epailea izan nintzen. Musu trukeko zeregina izan zen; bidaietarako ere ezer jaso gabekoa izan zen, baina gogo onez jardun nuen beti, nahikoa nuen atletismoa bultzatzearen satisfakzioa sentitzea”.

Arnaizek epailetzako ardurek asebetetzen ziotela adierazten duen arren, amorratorako momentuak ere maiz bizi izan ziteoela aitortzen du aldi berean. “Astebururo atletak kirola nola aritzen ziren ikusi, eta neu, hantxe epaitzen, geldi egonean egon beharrak, ezintasuna sortzen zidan. Behin, medikuak argi utzi zidan lasterka normal ezin-ego nuela egin etorkizunean, oinekin lurrean egin beharreko kolpeek begiari kalte egiten ziotelako. Baina beste alternatiba planteatu zidan; alegia, ea zergatik ez probatu ibilketa atletikoaren diziplinarekin. Proba horrek eskatzen duela korrika ez egitea eta oinak hegan edo airean ez eramatea denbora berean, alegia lurzoruarrekin kontaktua eduki behar duela atletak beti. Hitz batean, kirol horrek



"Pakitin" Arnaiz, Delan Irazu, Nika Murillo eta Jose Manuel Hernandez Etxeberrietako Jai Batzordeko kideekin. AIURRI

begiari kalterik ez liokela egingo eta niretzat zela egoki-egokiena, gaineratu zidan”.

Ibilketan, egundoko arrakasta

Medikuaren gomendioa entzun bezain pronto heldu zion ibilketa atletikoaren diziplina berriari. “Hutsetik hasi behar izan nuen; ez dirudi, baina egundoko teknika eskatzen du ibilketak. Hasieratik, guztiz autodidakta izan zen nire prestaketa pertsonala: probak zuzenean edo telebistaz ikusi, ibilketalariei kontseiluak eskatu, han hemen lortzen nituen azalpen idatziak irakurri... Horrelaxe sartu nintzen mundu berri horretan”.

Lehiaketetan parte hartzen hasi, eta agudo, garaipenak bata bestearen atzetik heldu zitzaizkion, 1992tik aurrera, 3.000, 5.000 eta 10.000 metroko probetan. Besteak beste, Euskadin urrezko hamar domina eta zilarrezko bi domina, eta, Espainian urrezko zortzi domina eta zilarrezko hamar domina. Bereziki aipatzekoa da 2005ean, Portugalen, Europako txapela jantzi zuela 10.000 metroko proban, 60-64 urte bitarteko mailan, 55:21eko denbora eginda.

Bestalde, 2010ean, Andoaingo Kirolaren Galan, urteko kirolaririk onenaren titulua eman zioten.

2005 eta 2015, bi urte mingarri

Atzera begira jarri eta ibilbide jorian makina bat une pozgarri gogoratzen baditu ere, 2005 eta 2015 urteak aztertzen hasita, minkatu egiten zaizkio oroitzapenak. Hain zuzen, 2005ean, Portugalen Europako urrea lortu zuen 10.000 metroko proban. “Eta segidan, mundu mailakoa Donostian zen jokatzekoa; bereziki prestatu nahi izan nuen hura, podiuma zapaltzeko aukera handia neukalako, aurrekariak ikusita”.

Arnaizek, artean, instituboki antolatu izan zituen prestaketak. Baina urte hartan, segundo batzuk irabazteko itzaropenarekin, planning berezi bati heltzea

erabaki zuen. “Bost alditan Espainian 50 kilometrotan txapel-dun izan zen Mikel Odriozolari eskatu nion laguntza. Kontua da, gorputza gehiegi behartu, eta zaintziratu jasan nuela. Donostiako hitzordu handiaren aurretik, Sevillako proba jada minarekin hartu nuela parte; oina ezin luzatu behar bezala, eta bi ohartarazpen jarri zizkidaten. Donostiakoaren atarian, denetik probatu nuen sendatze aldera: bendak, masajeak, injekzioak... Lehia eguna iritsi, eta ekin bai, baina agudo, erretiratu behar izan nuen. Egun horretako porrota horrek eragin izan dit arantzarik handiena, nire kirol ibilbide guztian”.

2015an, berriz, kirolaren praktikari kito egitea bultzatu zioten osasun-arazoek. “Benidormen geuden emaztea eta biok, lehiaketa baten aurreko egunak ziren, eta bihotzak seinale gaiztoa eman zidan. Medikutara joan, eta arritmia detektatu zidaten. Hartaz gero, sintromaren tratamendua ezarri zidaten; ezin gehiago bihotza behartu, pena izugarriarekin! Egia esan, edozein proben aurreko astean jada, kardiakoa jartzen nintzen beti-beti. Ez zen gozoa izaten nirekin elkarbizitzea, eta alde horretatik, aitortzen dut ordainezkoa dela emazteak nirekin jasan behar izan dituen uneak, lehien atarrietan, batik bat”.

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Andoaingo Guduari buruzko ibilaldi gidatua irailean

Irailaren 14an, larunbatarekin, Andoaingo Gudu gertatu zeneko 187. urteurrena beteko da. Horren harira, iaz egin zen bezalaxe, aurten ere egun horretan guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatu du Larramendi Bazkunak. Ibilaldia Jon Unanuek zuzenduko du eta goizeko 11:00etan hasiko da, ordu pare batez Andoaingo kale eta txokoetan barrena ibiliz herrian izan den gertakari historiko larrienetakoaren berri emateko. Hasiera Goikoplazan emango zaio, elizaren eskaileretan eta, amaiera, Otieta-ko Unanibiko zubian, bertan emango baitie Unanuek amaiera bere azalpenei han izan ziren borroken berri emanez.

1837ko irailaren 14an gertatu zen Andoaingo gudua, Gurutze Santua gora-

tzeko Eliza katolikoak izendaturiko egunean (urteak bi Gurutze Santu egun baitauzka), lehenengo Karlistaldian. Carlos erregegaia bere gudarostearekin Madrilerantz joana zela baliatuz, O'Donnell jeneral liberalak Donostia eta Hernanitik bere agindupeko tropak, 7000 gizon inguru, Andoaingera ekarri zituen eta kanpamendua Goikoplazan ipini, inguruan ziren soldadu karlistak Orieta eta Leitzaran ibaien bestalderantz uxatu eta bidean izua, hondamendia eta bortxa zabaldu ondoren. Aurrerabide horren albiste jaso bezain laster, Uranga jeneral karlista Nafarroatik batailoi batzuekin etorri eta kontraerasoa antolatu zuen, horretarako 3.500 mutil bildurik. Irailaren 14an jo zuten kontrae-

rasoa karlistek eta O'Donnell engainatu ondoren oso borroka gogorak izan ziren Andoaingo kaleetan barrena. Egun hartako borroketan 600-800 lagun inguru hil ziren, gehienak gudaroste liberalenak, haien artean Karlistaldian borroka egitera Erresuma Batutik etorritako Legio britainiarreko ingeles, eskoziar eta irlandarrak.

Andoaingo herriak eta aldirikoez hondamendi handia izan zuten: Andoaingean 55 baserri guztiz kiskali zituzten, bertakoak ihesean jarri ondoren; Urnietan herri ia osoa kiskali zuten, bost etxe besterik ez zen zutik gelditu. Lehenengo karlistaldian izandako gudurik ankerenetakoa izan zen, historiografia ofizialak nahikoa bazterrean utzi izan duena al-

derdi epiko handirik ez eta herritarren oso oldarraldi gogorra izan zuelako.

Horri guztiari buruzko azalpenak entzun eta gertakariak izan ziren lekuak ikusi ahal izango dituzte partaideek, Leitzaran ibaian gora azkena Unanibiko zubian entzuteko.

Guztiz zehazturik ez dagoen arren, ibilaldia hauxe izango da: Goikoplaza (eliza), Andreurdinarena plaza, Kale Nagusia, Gurutze Santua, Bekoplaza, Lizarkola, Olazar, Otieta (Unanibiko zubia). Ibilaldi gidatuan parte hartzeko aurretik izena eman besterik ez da egin behar. Horretarako, idatzi harrera@larramendibazkuna.eus helbidera edo deitu 656-782-521 zenbakira. Partaide kopurua mugatua da.



Finalaren ostean ohikoa da taldeko argazki handia ateratzea. Bertan ageri dira, askoren artean, antolatzaileak, pilotariak, lagunak eta zaletuak. Giro ederra sortzen da Goiburuko pilotalekuan. AIURRI

Loidi eta Amondarain, garaile

2022ko eta 2023ko garaile izandako Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi txapelkunorde izan dira aurtengo edizioan. Aurreko igandean jokatu ziren finalak, eta giro ederra sortu zen zaletuen eta pilotarien artean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo pilotazaleen artean aurkezpenik behar ez duten Julen Loidi eta Aitor Amondarain izan dira aurtengo Gaztetxeako Eskupilota txapelketako irabazleak. Finalean aurrez aurre zituzten aurreko bi urteetako irabazleak, hots, Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi. Ez zuten hirugarren txapela jarraian irabazterik izan, baina beste behin ere txapelketari eta pilotalekuari neurria ondo hartu diotela erakutsi zuten.

Ostiral gauean egitekoa zen, hasiera batean, finala. Baina eskuetako minak eta lesioak medio, igande arratsaldean jokatu zen. Eguna eta ordua aldatzea ez zen eragozpena izan zaletuentzat. Ohi bezala, dozenaka lagun hurbildu zen pilotalekura, txapelketa kuttunaz gozatzeraz.

GAZTETXEKO FINALAK

2024KO FINALAK

Uztailak 14. igandea. Goiburu.

Finala:

Loidi-Amondarain / Lontxo-Jaure **22-5**

3-4. postuak:

Beñat-Iñaki / Gaztañaga-Miner **22-15**

2023KO FINALA

Lontxo-Jaure / Jurgi-Koldo Ponce **22-15**

2022KO FINALA

Lontxo-Jaure / Gaztañaga anaiak **22-17**



Zaletu asko hurbildu zen Goiburura, igande arratsaldean. AIURRI



Julen Loidi eta Aitor Amondarain, aurtengo txapeldunak. AIURRI



Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi, aurtengo txapelkunordeak. AIURRI



Beñat Salvador eta Iñaki Lopez de Munain, hirugarrenak. AIURRI



Irati Aranguren, irabazlearen saria jaso berritan. ANDOAINGO

Irati Arangurenen balentria, Espainiako Kopa irabazita

Leongo lasterketan Paula Ostiz aurkari zuzena kontrolpean izan zuen Andoaingo Txirrindulari Eskolakoak

Erredakzioa ANDOAIN

Irati Aranguren eta Paula Ostiz nafarra maila beretsuan lehiatu dira Espainiako Kopan. Aurreko asteburuan azken lasterketa egin zen Leonen eta jokoan zegoena ez zen txikieria: Espainiako Kopa eskuratzea. Biak parez pare, sailkapenean oso tarte txikia zegoen bien artean.

Arangurennek postu bat atzerago sailkatzea nahikoa zuen txapelketa irabazteko. Eta halaxe izan zen. Celia Torres eta Esmeralda Racionero ihesaldian iritsi ziren helmugara, eta jarraian Paula Ostiz eta Irati Aranguren. Helburua lortuta, kopa berea zen. Zorionak Iratiri eta Intza Del Teso taldekideari.



Hirugarren helmugaratu zen Ostiz, eta laugarren Aranguren. ANDOAINGO



Partida ugari jokatzen ari da Nora Mendizabal andoaindarra. AIURRI

Plazandreak txapelketako finalerako hautagaia da

Aldairekin batera ari da Mendizabal andoaindarra, Bilbon jokatzen ari den txapelketan

Erredakzioa ANDOAIN

Bilboko Esperantza pilotalekuan giro paregabean jokatzen ari da Plazandreak torneo. Binakako torneo ezin berdinuagoa dago, Arrizabalaga-Capellanen garai-penarekin, hiru baitira puntu banarekin lehen postuan berdinduta dauden bikoteak; Arrizabalaga-Capellan, Aldai-Mendizabal eta Zabaleta-Gaminde. Asteburuan jakingo da finala jokatuko duten pilotarien izenak.

Bestalde, Udako Master LABORAL KUTXA torneo abiatzean da. Honatx, bikoteak: Larrarte-Mendizabal, Aldai-Oses, Etxegarai-Gaminde, Arrizabalaga-Bergara eta Garai-Capellan.



Joanes Iturrarte, 2022ko 3x3 txapelketan. AIURRI

Abiatu da 3x3 saski-txapelketa, Andoaingo Gaztetxean

Arratsaldeko 19:00tan hasita, lagunarteko txapelketa jokatzen ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Uztailaren 15ean eman zioten hasiera 3x3 basket txapelketari, eta partidak asteleheneretik ostiralera iragarrita daude. Azken jardunaldia uztailaren 22an izango da. Ordutegia egun guztietan bera da: 19:00tan hasiko da lehen partida, eta azkena 21:00tan. Honatx parte hartzen ari diren taldeen izenak: Xicla-

na, Smlctld, Txekorrak, Badara's Team, Ambizurdos, El Kilombo, Portxeta, Bar-Bi, Tolais, Michael Txortan eta Ganbara Generation.

Giro bikaina sortu ohi da saskibaloia aitazkiapen. Musika eta edaria aukeran izaten da, eta eguzkitik babesteko lanapea ez da falta izaten. Lagunarteko saski partidez gozatze-ko aukera polita da.

Padel ikastaroa, eskaintza berria Urnietako kiroldegian

Matrikulazio epea uztailaren 22an irekiko da, eta irailaren 16an emango diote hasiera ikasturteari

Erredakzioa URNIETA

2024-2025 ikasturteko eskaintza berri eman du Urnietako Udalak, eta bertan jarduera fisikari eta osasunari loturiko aukera zabala ageri da. Bogan dagoen padela ikasteko aukera,

horixe da berritasun nagusia: "Gazteen taldean 16 urtetik behetakoek parte hartu ahal izango dute. Helduen kasuan, berriz, bi talde egongo dira: bata, hasitakoak; bestea, hobekuntzarako zuzendurikoa".

Matrikulazio epea uztailaren 22an irekiko da, irailaren 2ra bitarte. Eskaintza osoa Urnietaeus webgunean aurki daiteke. Honatx, iragarri dituzten ikastaroak: spinninga, bodyzumba, total traininga, tonifikazioa, 3. adina, aholkularitza gimnasioa, pilatesa, gimnasia funtzionala, bodypumpa, combo bodypumpa gehi spinninga, GAPa eta Hipopresiboak eta stretchinga.

Ikastaroen prezioa %20 merketuko zaie Urnietan erroldatutako pertsoneri.



Alex Astigarraga kirol teknikaria eta Ainhoa Ostolaza kiroldegiko zinegotzia. UDALA



AIURRI

Euskal Herriko sega-txapelketa

Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatuta, finala jokatuko da larunbat honetan Zizurkilgo Nekola baserriko zelaietan. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da dema. Bertan ariko da Julen Gabirondo urnietarra eta, bestek beste, lehiakide izango ditu Gipuzkoako finalean aritutako Jokin Etxeberria eta Mikel Lizartza.



AIURRI

Abiatu da Goiburuko txapelketa

Eskupilotakoa amaituta, astelehenean ekin zioten Goiburuko pala-txapelketari. Lau jardunaldi iragarrita daude, eta finala Goiburuko jaietan jokatuko da. Honatx, lehen jardunaldian aritu ziren bikoteak: Xabat-Balerdi, Aratz-Iraitz, Igon-Yerai, Canflanca-Otamendi, Arberas-Guti, Julen-Potti, Ibai-Mikel eta Aitor-Ander.

Birritan igaroko da bertatik Klasikoa

Abuztuaren 10ean nazioarteko tropela Donostiako Klasikoan elkartuko da

Erredakzioa ANDOAIN

Nazioarteko talde onenak Andoaindik eta Urnietatik birritan igarotzen ikusteko aukera izango dugu, aurtengo edizioan. Espainiako Vuelta hasteko egun gutxiaren faltan, izen handiak espero dira irteeran. Ibilbidean aldaketa izan da eta lasterketa hasi berritan Betteri-Buruntzan barrena igaroko dira. Donostiako Tolosa hiribidetik irtengo da tropela eta hasiera ofiziala Añorgan emango diote. Honatx, lehen igaroadiaren ordutegia, aurreikuspen azkarrenean:

Abuztuak 10, larunbata

10:58 Añorga.
11:05 Hernani.
11:08 Urnieta.
11:14 Andoain.
11:22 Amasa-Villabona.
11:26 Asteasu.
11:35 Andazarrate.
Lasterketaren erdialdera bigarren aldiz igaroko dira inguruotatik, Jaizkibel igo aurretik. Honatx, ordutegia:
13:59 Alkiza.
14:07 Zizurkil.
14:12 Aduna.
14:17 Andoain.
14:23 Urnieta.
14:27 Hernani.
16:33 Helmuga.

Beñat Fernandez "Pelontxu"-ren motoa ikusgai dago Arraten

European Talent Cup txapelketaren zortzigarren edizioan hartu du parte Beñat Fernandez "Pelontxu" gazteak. Mundu osoko 49 pilotuk ematen dute izena txapelketan, eta andoaindarra Frando Racing VHC Team taldean lehiatzen ari da. Txapelketan darabilen motoa ikusgai egongo da Arrate frontoiko harreran, uztailearen 27ra arte.



Izaro Etxarri eta Eñaut Urkaregi. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Europako pista txapelketan lehiatzen aritu dira

Bakarkako jazarpen proban eta taldeka, bi probatan lehiatu ziren Izaro Etxarri eta Eñaut Urkaregi

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako Izaro Etxarri eta Danena taldeko Eñaut Urkaregi (aita Jon Urkaregi andoaindarra da) aurreko asteburuan itzuli ziren Alemaniako Cottbus hiritik. Bertan jokatu zen Europako junior mailako pista txapelketa, eta bi txirrindulariek Espainiako selekzioa ordezkatu zuten.

Taldeko eta bakarkako jazarpen probatan, bietan lehiatu ziren. Bakarka, azkenik, Etxarrik hamaikagarren postua lortu zuen, eta Urkaregik, berriz, zortzigarrena. Taldeka, nesketan nahiz mutiletan, Espainiako selekzioa seigarren postuan sailkatu zen. Emaiza horri esker, goi mailako kirolari izateko eskubidea eskuratu dute biek.


andoainDARRA
euskaraz

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

  ORAIN GIPUZKOA

Jai Alai Summer Season txapelketa

Erredakzioa URNIETA

A eta B taldeetan finalean egon nahi duenak bi jardunaldi hauek irabazi beharko du. Kale edo bale, ez dago besterik. A mailan, uztailearen 11ko partidatan garaile izan ziren Barretxea IV-Urriza eta Juanenea-Ansa II bikoteak. Ostegun honetan elkarren aurka ariko dira, arratsaldeko 16:30ean hasiko den jaialdian. Antolatzaileak pozarren daude: "Pilotariak maila oso altua erakusten ari dira Galarreta pilotalekuan. Ostegun honetan, joan den asteko irabazleak izango ditugu aurrez aurre, txapelketako final handia hortzimugan dela".

B mailan, Goikoetxea V-Eskudero eta Zaldua-Zubiri aurrez aurre ariko dira. Urrietarrak eta andoaindarrak aurreko asteko partida galdu zuten Gurrutxaga-Apezetxearen aurka.

Alkate Txiki izan nahi dutenek egunotan eman behar dute izena

Sanmioletan, Haurren Eguna irailaren 30ean ospatuko da. Alkate Txikiiek protagonismo berezia hartu ohi dute, egun horretan. Rol hori bete nahi duen gaztetxoak uztailearen 30a bitarte du izena emateko aukera. Urnieta.eus gunean bete behar dute fitxa eta, segidan, zozketa bidez aukeratuko dira.

HITZORDUAK

HARREMANETARAKO: Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus



Adin-tarte guztiei eskainitako ikuskizuna da. PANTA RHEI

ANDOAIN FAMILIA IKUSKIZUNA, OTIETAN

Natura ardatz duen ikuskizuna eskainiko du Panta Rhei konpainiak, ingurune paregabean: Leitzaran haranaren sarbidea.

Uztailak 20, larunbata. 12:00. Otieta.

OSTEGUNA 18

ANDOAIN Uda zinema kalean

"¡Vaya vacaciones!" filma.

19:00, Goikoplaza.

LARUNBATA 20

HERNANI Erremontea

Udako jaialdian, B taldean, Goikoetxea urnietarra eta Eskudero andoaindarrak ariko dira lehian.

16:30, Galarreta Jai Alai.

ASTELEHENA 22

ANDOAIN Udal fonoteka

Uztailearen 22an eta 29an zabalik.

16:00-20:00, Bastero.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Jaiak auzoz auzo

Etxeberrietako jaien hasiera.

18:00.

ABUZTUA

OSTIRALA 2

ANDOAIN Jaiak auzoz auzo

Goiburuko jaien hasiera.

18:00.

ASTELEHENA 5

ANDOAIN Odol-emaileak

Andoingo Anbulatorioa.

16:30-20:30.

Albisteak, udan, Aiurri.eus webgunean

Erredakzioa URNIETA

Irakurle fidelenak ondotox daki Aiurri.eus webgunea egunero zabalik dela, baina udan ere. Bertatik eskaintzen den informazio-jarioa ez da txikia. Udan, gizarte bizitza nabarmen apaltzen bada ere, albisteen leihoa zabalik izan ohi du erredakzio taldeak. Leiho hori Aiurri.eus webgunea da, eta haren luzapenak dira X (Twitter), Facebook eta Instagram sare sozialetako profilak. Andoingo auzoetako jaiak, Frantziako Tourraren amaiera, Espainiako Vueltaren hasiera... Hitzordu horien jarraipena egin ahal izango du Aiurriko irakurleak, webgunean klik eginez.

Datorren astean hasita, bestalde, ez da paperezko ediziorik argitaratuko. Oporraldi osteko lehen Aiurri astekariaren banaketa irailaren 5ean abiatuko da. Bitartean, uda on, irakurle!

Ziako errekarari lotutako herri bilera, datorren astelehenean

Ama Kandida etorbidean Ziako errekarari lotutako lanak ez dira txikiak, eta eragozpen handiak sortzen ari dira bizilagunen joan-etorrian. Uztailearen 17rako herri-bilera deituta bazegoen ere, azkenean uztailearen 22an egingo da, astelehenarekin. Martin Ugalde Kultur Parkean izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita.

ZORION-AGURRAK



URNIETA Izaskun
9 urte beteko dituzte uztailearen 22an. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN Ane Lopez
Zorionak zure 11. urtebetetzean politta! Muxu potolo bat jaso etxeko guztien partetik!



ANDOAIN

Itxaso eta Eñaut Berrueta

Zorionak bikote! Uztailearen 23an Itxasok 8 urte beteko ditu eta uztailearen 27 Eñautek 12 urte! Egunak earki ospatu eta udara ear bat pasa, bueltakoan gaude! Muxu erraldoiak aitona-amona eta izeba-osaban partez!



ANDOAIN

Zorionak Ainara eta Onintza

Onintzak abuztuaren 2an 8 urte beteko ditu eta Ainarak abuztuaren 10ean 40 urte. Zorionak eta ondo pasa etxekoekin partez!



ANDOAIN

Amona Miren

Dozenaka zorion-agur bidali ditu Mirenek, urte luzez, Aiurriko erredakziora. Datorren abuztuaren 10ean, berriz, amona Mirenek berak egingo ditu urteak. Ondo ospatu eguna, Miren, Aiurrikoen eta etxekoekin partetik.



Urnieta
udala



Eskelak
Aiurriin:
90 euro

HERIOTZ-OHARRA

Maria Sandonis Lasheras


Oiartzunen hil zen, uztailearen 16an, 59 urte zituela



"Amalurrak kulunka zaitzala"



Urnieta, 2024, Uztaileak 17.
Egape Dantza Taldeko kide eta lagunak



***Mendira,
hondartzara,
festara...***

***Uda honetan ere zurekin
eramango gaituzu***

Okm:
batzen gaituen
distantzia